




**AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK
GAI ETA EGITUREI LOTUTAKO PROPOSAMENAK:
ELKARRIZKETA ITXIETATIK IREKIETARA**



AURKEZPENA

Ahozko jarduera laburrak errutina bihurt daitezkeen ekintza komunikatiboak dira. Hau da: ikasleek ahoz garatu behar dituzten ekintza komunikatiboak, baina ikasleekin hainbatetan egin ditzakegunak (egunero, astero...)

Hainbat gairen eta helbururen inguruan landu daitezke ekintza komunikatibo horiek, eta hainbat modutako errutinak sortu daitezke.

Ondorengo orrietan horri begirako azalpen bat eta hainbat adibide aurkezten dira, baina garatzen jarraitzeko asmoa dugu Ebetetik eta ekintza komunikatibo gehiago eta landuagoak sortzen eta eskaintzen ahaleginduko gara.

GAI ETA HELBURU ADIBIDEAK

Gaia/Xedea	Jarraibideak	Informazioa ematea/jasotzea	Aholkuak	Deskribapenak	Sentimenduak /Iritziak /Arudioak
Agurrak	•	•	•	•	• Agur formalak edota informalak
Ordutegia	• Egun baten antolaketa	• Ordua ematea • Ordua galdetzea	•	•	• Berandu gabiltzala/denboraz gaizki gabiltzala • Garaiz gabiltzala
Eguraldia	•	• Eguraldiaren berri	• Eguraldiaren	• Ekaitza	• Uda edo negua

		ematea	arabera zer hartu kontuan (arropa...)	deskribatzea	hobe
Elikadura	<ul style="list-style-type: none"> • Errezeta 	<ul style="list-style-type: none"> • Menua • Garaian garaikoa 	<ul style="list-style-type: none"> • Elikadura osasuntsua 	<ul style="list-style-type: none"> • Jakien itxura 	<ul style="list-style-type: none"> • Bero/hotz handia • Gustuko janak
Lagunak/Ikaskideak	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Lagun ona izateko aholkuak 	<ul style="list-style-type: none"> • Lagunen ezaugarriak 	<ul style="list-style-type: none"> • Gauza onak opa
Familia	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Familiaren ezaugarriak 	<ul style="list-style-type: none"> •
Etxea	<ul style="list-style-type: none"> • Etxera nola iritsi azaltzea 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko garbiketa-mantenua 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko leku ezberdinen deskribazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Etxeko txoko txukunena
Aisialdia	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Asteburua egin daitekeen aholkatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Asteburu batean egiten dugunaren deskribazioa 	<ul style="list-style-type: none"> • Gustuko jarduerak
Ikastola	<ul style="list-style-type: none"> • Eskolara nola iritsi 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Ikastolako txokoen deskribapena 	<ul style="list-style-type: none"> •
Herria	<ul style="list-style-type: none"> • Leku batetik bestera nola joan 	<ul style="list-style-type: none"> • Herriaren historia, kondairak 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko auzoen edo txokoen deskribapenak 	<ul style="list-style-type: none"> • Herriko txoko gustukoena
Kirola	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Animoak
Gorputza	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> •
Osasuna	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> •
Erosketak	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> • Zer nahi dugun eskatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Ondo erosteko aholkuak 	<ul style="list-style-type: none"> • 	<ul style="list-style-type: none"> •

Garraioa	<ul style="list-style-type: none"> Leku batetik beste batera nola joan 	<ul style="list-style-type: none"> Garraibide ezberdinei buruzko azalpenak 	<ul style="list-style-type: none"> Garraio bideei buruzko aholkuak, iasandarritasuna... 	<ul style="list-style-type: none"> Garraibide ezberdinen ezaugarriak 	<ul style="list-style-type: none"> Garraibideetan bizenak
Ospakizunak	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Gonbidapenak 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Ospakizun batzuen ezaugarriak 	<ul style="list-style-type: none"> Gustuko ospakizunak
Zientzia/teknologia	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none">
Ekonomia	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none">
Zerbitzuak/merkataritza	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Produktuak non erosi 	<ul style="list-style-type: none"> Erosketak ondo egiteko aholkuak 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none">
Albisteak	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Albiste bat eman 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Albiste bati buruzko iritzia
Arloak/Arloetako edukiak	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Saioaren laburpena Aurre-ezagutzak 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> 	<ul style="list-style-type: none"> Gai bati buruzko iritzia

Dokumentu jaso diren adibideak

Aisialdia: astebururako aholkuak ematea
Aisialdia: asteburuan egindako zerbaiten berri ematea
Aisialdian egindako gauzei buruzko ekarpenak
Albiste bat ematea (albiste nagusiak)
Albiste bati buruzko iritzia
Eguraldia: bihar nola janztea komeni den azaltzea
Eguraldia: eguraldiaren berri ematea
Lagunartea: Lagunentzako aholkuak
Deskribapenak: lagunen ezaugarriak
Ordutegia: Egun baten antolaketa azaltzea
Eguraldia: eguraldiaren berri ematea
Albiste bat ematea (gertuko gaiak)
Elikadura: Garaian garaikoaren berri ematea
Elikadura: menua azaltzea
Erosketak: Erosketak ondo egiteko aholkuak
Herria: Leku batetik bestera nola joan
Kirolak: Kirola deskribatzea
Kirolak: Arauak azaltzea
Lagunak: Balioak

Norabidea

Gai bakoitzaren lanketan progresio bat: Erabilera itxien bidez lanketa egitetik erabilera irekira:

Erabilera itxia	Guk emandako ereduak errepikatu behar dituzte.	Elkarrizketa itxiak eta hizkuntza-jolasak: Hiru lerroan, 1-2-3-4-5-6-7, Galdera kateak, Objektua kentzea...
Erabilera bideratua	Hizkuntza-errtuina batzuetatik abiatzen da baina produkzio bat ere eskatzen du.	Hizkuntza-jolasak eta hizkuntza-errtuinak dituzten dinamikak: Ez dakit nor naizen,
Erabilera irekia	Beraien produkzioa da erabat, nahiz eta egoera bera antolatua edo babestua izan (ikasgela)	Dinamikak edo egoera proposamenak: Azalpena taldeari, Debatea...
<i>Erabilera askea</i>	<i>Gelaz kanpo eguneroko egoeretan naturaltasunez erabiltzea</i>	<i>Kalean ematen da. Egoera librea dira. Lagundu dezakete: Esamoldeak salgai...</i>

Ikasturte bateko plangintza adibidea:

	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
Lehen hiru hilekoa	Aisialdia deskribapena: asteburuan egindako zerbait berezia kontatzea				
	Eguraldia aholkuak: arratsaldero norbaitek hurrengo eguneko eguraldiaren berri ematea eta horren araberako aholkuak				Asteburua aholkuak: astebururako aholkuak ematea
Bigarren hiru hilekoa	Aisialdia iritzia: aisialdian egindako zerbaiti buruzko iritzia ematea		Albiste informazioa ematea: gertuko albiste bati buruzko informazioa ematea		
					Lagunak deskribapena: Nor da nor? Zein kideri buruz ari diren asmatzea
Hirugarren hiru hilekoa	Elikadura informazioa ematea: jantokiko menuaren berri ematea				
			Albiste informazioa eta iritzia ematea: batek albiste bati buruzko informazioa ematea eta beste batek iritzia ematea		Eguraldia informazioa ematea: asteburuko eguraldiaren berri ematea

Bat lantzen hasi eta hizkuntza-errutina bihurtzean beste batekin hasi. Hiru hilero errutina berriak.

Ikastetxeentzat proposamena

1. Taula osatu:

- Ziklo bakoitzean tarte bat hartu eta taula osatu burura datozkizuen gaiekin

2. Ikasmaila bakoitzerako batzuk aukeratu

- Ikasmaila bakoitzean lantzeko zeintzuk izan daitezkeen egokiak aukeratu

3. Zein tarteetan landu daitezkeen zehaztu

- Hizkuntza-jolasak, hizkuntza-errutinak eta abar zein tarteetan landu ditzakegu? Kolektibetan? Egunero ahozkoa lantzeko tarte bat hartuta? Euskara arloan? Zer egiten da gaur egun? Horretaz gain gehiago egingo genuke?

4. Dinamikak prestatu

- Gai bakoitzerako dinamikak proposatu

Ebetetik honetan lagundu dezakegu:

A- Taula osatzen

B- Dinamika zehatzak proposatzen

- 1-2-3 puntuak osatzen badituzue, guk dinamika zehatzak proposatuko dizkizuegu.

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Aisialdia	Aholkuak	Astebururako aholkuak ematea
-------------	-----------	----------	------------------------------

Aisialdia: astebururako aholkuak ematea	
Abiapuntua	<p>Asteburuetan egin daitezkeen gauzen zerrenda bat egingo dugu denon artean eta arbelean edo kartulina batean idatziko dugu.</p> <p>Bakoitzak taldeko hiruri (guk esango diegu zeini) zerbait aholkatu behar diote eta zergatia esan. Zer gomendatzen diozeu lkerri? Hondartzara joatea igeri egitea asko gustatzen zaiolako, kalera ateratzea lagunekin ibiltzea gustatzen zaiolako, beldurrezko pelikula bat ikustea horrelako pelikulak asko gustatzen zaizkiolako.</p> <p>Aholkuak jaso dituenak iritziak emateko edota eskerrak emateko aukera izango du.</p> <p>Oharra: egun berean ez badu denbora ematen denei aholkuak emateko, bi-hiru egunetan errepikatu daiteke elkarrizketa.</p>
Erabilera itxia	<p>Esketxak: Aholkuak tonu aldaketekin</p> <p>Esketx labur laburrak proposatuko dizkiegu eta behin baino gehiagotan egingo ditugu. Bi-hiru ikaslek egiteko esketxak izango dira. Baina oso oso laburrak. Adibidez:</p> <p>Bi lagunek kalean egiten dute topo. Hizketan hasten dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ez dakit zer egin asteburu honetan - Asteburu honetan? Zinemara joan. Pelikula oso onak daude.

	<ul style="list-style-type: none"> - Ez. Zinemara ez. - Hondartzara joan, eguraldi oso ona egingo du. - Ez. Hondartzara ere ez. - Lagunekin atera kalera. - Ez. Lagunekin kalera ez. - Aizu! Ba nahi duzuna egin! <p>Behin baino gehiagotan irakurriko dugu eta gero ikasle batekin irakasleak esketxa egingo du.</p> <p>Bi-hiru aldiz egin dugunean, tonuarekin jolasten hastea proposatuko diegu: orain negarrez egingo dugu (negarrez antzeztu behar dute), orain farrez, orain haserre, orain oso serio, orain doministiku eginaz...</p> <p>Modu horretan esketxa jolas bihurtzen dugu eta gaia lantzen dugu.</p> <p>Esketx berriak sortu daitezke eta saio gehiagotan ere egin.</p>
	<p>Hizkuntza-jolasa 1-2-3-4-5-6-7</p> <p>Ikasleetako bat 1 zenbakitik hasiko da eta hurrengoek zenbakiak esaten jarraituko dute. 7 zenbakia ezin da esan, horren ordezkari guk esandako esaldi bat errepikatu behar dute. Adibidez: Zer ematen dute zineman? Beraz: 1-2-3-4-5-6-Zer ematen dute zineman?-1-2-3-4-5-6-Zer ematen dute zineman?...</p> <p>Ondoren, galdera erantzun egin beharko du hurrengoak, eta errepikatzen den bakoitzean erantzunak ezberdina izan behar du. 1-2-3-4-5-6- Zer ematen dute zineman?- Beldurrezko pelikula bat-1-2-3-4-5-6-Zer ematen dute zineman?-Batman-1-2-3-4... Eta azkenik, bigarren erantzun bat ere gehituko diogu, eta hau aholku edo animo bat izango da. Adibidez: 1-2-3-4-5-6- Zer ematen dute zineman?- Beldurrezko pelikula bat- Oso itxura ona du! - 1-2-3-4-5-6-Zer ematen dute zineman?-Batman- Merezi du ikusteak!- 1-2-3-4...</p> <p>Gaia aldatzen badugu, jolasa hainbatetan errepikatu daiteke: Zein jaialdi dago?, Noren kontra jokatzen du atletikek?...</p> <p>Oharra: hirugarren erantzuna nahiko zaila izan daiteke, eta beraz, jolasten hasi aurretik denon artean aukerak zerrendatzdea ondo egon daiteke.</p>

<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Aukeratu taldea</p> <p>Lau ikasle erdira aterako ditugu eta bi bikote osatuko dituzte. Bikote bakoitzari jarduera bat proposatuko diogu. Adibidez: batik hondartzara joatea eta besteari mendira joatea. Besteak animatu beharko dituzte beraien jarduera egitera. Beraz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Beste bi erdira aterako dira eta galdetu egingo dute: zer asmo duzue asteburu honetan? • Gu hondartzara goaz. Gu Mendira goaz. • Zalantza gaude. Ez dakigu zer egin. • Etorri gurekin! Eguraldi oso ona egingo du hondartzara joateko. • Etorri gurekin! Mendan marrubiak bilduko ditugu. <p>Pixka batean utzuiko diegu eta ondoren talde aukertu beharko dute. Talde berdineraren edo bakoitza batera joan daitezke.</p> <p>Beste bi atera eta berdin. Kide berriek ere argudioekin lagunduko dute. Horrela, denek aukeratu arte.</p> <p>Ondoren sokatiran egingo dute bi taldeek.</p> <p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Aukeran, patioan egiteko dinamika aproposa da • Hainbat aldiz errepikatu daiteke.
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Astebururako aholkuak ematea</p> <p>Ostiralero, ikasleetako bik astebururako aholkuak emango dituzte elkarri ziketa moduan. Etxedan geratu ezkerok zer egin, zineman zer dagoen, kirol ekitaldiak, jaialdiak... Nahi dutenari buruzko bi-hiru aholku emango dituzte.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Aisialdia	Deskribapenak/Azalpenak	Asteburuan egindako zerbaiten berri ematea
-------------	-----------	-------------------------	--------------------------------------------

Eguraldia: asteburuan egindako zerbaiten berri ematea	
Abiapuntua	<p>Denon artean hitz egingo dugu: zer gustatzen zaigu egitea asteburuetan?</p> <p>Esaten dituzten gauzen xehetasunetara hurbultzen saiatuko gara galderen bidez. Non egiten dugu? Nolakoak dira leku horiek? Zergatik gustatzen zaizkigu? Adibidez: kirol lehiaketa batean parte hartzea edo ikustea, kultur ekitaldi bat, kalera ateratzea...</p>
Erabilera itxia	<p>Zerrenda luzea osatzen denon artean</p> <p>Ikaskide bakoitza bere izena esaten hasiko da. Txandaka, orden bat jarraituz, esaten hasiko dira. Momentu batean galdera bat egingo du irakasleak eta galdera hori erantzuten hasi behar dute, baina erantzuna ezin dute errepikatu. Adibidez: Zer egingo duzu igande goizean? Igande goizean mendira joango naiz- Igande goizean etxean geratuko naiz-Igande goizean lo egingo dut- Igande goizean... Irakasleak nahi duenean galdera aldatuko du: Igande goizean mendira joango zara, noreki joango zara? - Igande goizean mendira gurasoekin joango naiz. -Igande goizean mendira lagunekin joango naiz... Zein menditara joango zara? Zer dago mendi horretan? Zer uikusi nahiko zenuke?... Oharra: beste aukerfa bat da zerrenda ahalik eta luzeena osatzen saiatzea. Hau da: helburua izatea galdera bakar baten erantzun ahalik eta gehien lortzea. Zein izango da errekorra?</p>

	<p>Asmatu zer dagoen argazkian: Zer egingo duzu asteburuan?</p> <p>Ikaskidetako bat arbela aurrera aterako da. Arbelean argazkiak jarriko dizkiogu baina berak ez du ikusiko, ezin du begiratu. Taldeko beste kideek pantailan agertzen den galdera egingo diote. Asmatzen duen argazki bakoitzeko beste argazki bat eta beste galdera bat. Zenbat asmatuko ditu minutu batean?</p> <p>Adibidez: Argazkian hondartza agertzen da. Zer egingo duzu igandean?–Igandean mendira joango naiz– Ez, ez zara mendira joango!. Igandean zinemara joango naiz– Ez, ez zara zinemara joango. – Igandean hondartzara joango naiz– Bai, hondartzara joango zara! – (Argazkia aldatu)</p> <p>Zein hondartzedata joango zara? – ... – Norekin joango zara? –... – Nolakoa da zure bainujantzia?...</p> <p>Oharra:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zailegia izan daitekeela iruditu ezker, irakasleak pistak eman ditzake, edo kide bakoitzari bi–hiru komodin emango dizkiogu nahi duenean erabiltzeko. Komenida erabiltzen badu erantzunaesango diogu eta argazkia pasa. • Dinamika hainbat aldiz errepikatu dezakgu ikaskideak aldatuz.
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Azalpena katean: Asmatu ditzagun lehengo asteburuan gertatutakoak</p> <p>Ikasle bakoitzari egoera bat emango diot: Saskibaloi partidu bat ikustera joan nintzen, Kontzertu batera joan nintzen, Lehengusu baten urtebetetze festa ospatu genuen... (7 edo 8 egoera nahikoak dira, errepikatu ditzakegu eta ikasle ezberdinei egoera bera eman).</p> <p>Gelan zehar ibiltzen hasiko dira eta musika jarriko dugu. Musika geratzean bikoteak osatuko dituzte. Batak besteari bere zatia esango dio. Ondoren, irakasleak galdera bat egingio du. Adibidez: Non gertatu zen? Batak besteari berriz egoera esango dio eta non gertatu zen ere bai. Une horretan, batak bestearen azalpena hartu behar du berarentzat, eta hurrengoari azalpen hori emango dio. Hau da: txanda bakoitzean entzuten duen azalpena bere egiten du eta beraz istorio ezberdinak sortzen eta konatzen doaz.</p> <p>Berriz ibiltzen hasiko dira eta musika jarriko dugu. Musika geratzean berriz bikoteak osatu eta batak besteari kontatu. Irakasleak beste galdera bat egingo du: Norekin zeundeten edo joan zineten? Erantzuna asmatu eta batak besteari kontatu. Bestearen istorioa bereganatu.</p>

	<p>Modu horretan jarraituko dugu 7 edo 8 galdera egin arte. Horrela, errelato nahiko osatuak eta oso ezberdinak izango ditugu. Batzuei kontatzeko eskatuko diegu.</p> <p><i>(Lehen egunean dinamika ulertzea kostatzen bazaie, bi-hiru egunetan egin daiteke, ondo ulertu eta arina eta dibertigarria izatea lortu arte)</i></p>
Erabilera irekia	<p>Jarduera: Asteburuan egindako zerbait azaltzea</p> <p>Ostiraletan galdetuko diegu asteburuan zerbait ezberdina, berezia edo gustukoa egitekoa ote duten. Ikasle bati edo biri eskatuko diegu hurrengo astelehenean hori kontatzeko. Ostiralean hori eskatzen diegunean, gutxi gora behera zer jakin nahiko genukeen ere esango diegu. Adibidez: non izan zen, norekin joan ziren, zer egin zuten, zer izan zen gustukoena, nolakoa zen lekua edo dena delakoa. (Jarduera oso ezberdinak izan daitezkeenez, kontatzekoa ere oso ezberdina izan daiteke. Beraz, aurretik zer entzun nahi genukeen jakitea lagungarria izan daiteke beraientzat. Astelehenean kontatu egingo dute eta ikaskideek galderak egiteko aukera izango dute.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Aisialdia	Sentimenduak/Iritziak	Aisialdian egindako gauzei buruzko ekarpenak
-------------	-----------	-----------------------	----------------------------------------------

Aisialdian egindako gauzei buruzko ekarpenak	
Abiapuntua	<p>Denon artean hitz egingo dugu: zer egin dute azkenaldian berezia eta gustukoa? Esaten dituzten gauza horien inguruko iritziak eta sentimenduak azaltzera begira elkarrizketa sustatuko dugu. Zergatik izan zen berezia edo gustukoa? Zein sentsazio izan zituzten? Nola sentitu ziren? Zergatik sentitu zien horrela?...</p> <p>Ondoren, berdina egingo dugu baina gustatu ez zaizkien edo aspertu egin diren egoeren zerrenda bat egingo dugu.</p>
Erabilera itxia	<p>Emozioak eta bizipenak lotzen Kartulinetan emotikonoak eta ondoan idatzirik emozioak jarriko ditugu. Kartulina bakoitzeko bat. Adibidez: aspertuta, txundituta, unkituta, tristetuta...</p> <p>Ikasgelan (edo patioan) lurrian zehar sakabanatuko ditugu</p> <p>Ibiltzen hasteko eskatuko diegu, kartulinetan jartzen duenari begiratzeko, eta bizipenen bat emozio horrekin lotzen dutenean bertan idazteko. Kartulina bakoitzean hainbat bizipen agertzea da helburua. Adibidez: Unkituta=Pelikula bat, besarkada bat...</p> <p>Kartulina horiek ikasgelako paretan itsatsiko ditugu eta guztiak irakurriko ditugu. Bertan utziko ditugu.</p>

	<p><i>Nahi izan ezkerro elkarrizketa bat ere sortu dezakegu bertan agertzen diren gauzen inguruan.</i></p> <p>Irudiak eta emozioak arrazoitzen</p> <p>Taldeka jarriko ditugu eta lehiaketa bat egitea proposatuko diegu.</p> <p>Pantailan irudi bat eta esaldi bat agertuko dira. Adibidez: haur bat kalean, euritakoarekin, aterkiarekin eta katuskekin. Eta ondoan esaldi bat: Haserre nago! (edo Harrituta nago!, edo Txundituta nago!).</p> <p>Galdera egingo diegu: Zergatik dago haserre?</p> <p>10 segundu utziko dizkiegu taldeetan elkarren artean hitz egiteko eta arrazoi bat hautatzeko. Ondoren, talde bakoitzak bere arrazoa emango du. Balekoa den arrazoi bakoitzeko puntu bat izango dute, eta talde batek emandako arrazoa beste taldeek ez badute errepikatu, beste puntu bat.</p> <p>Irudi edota emozio ezberdinekin zenbait aldiz errepikatuko dugu dinamika. Puntuak gehitzen jarraituko dute. Saio bakar batean edo gehiagotan erabil daiteke dinamika.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Pilota elkarri: Zergatik sentitu nintzen horrela?</p> <p>Bi pilota ereabiliko ditugu. Borobil batean jarriko dira ikasleak eta bati emango dizkiogu bi pilotak.</p> <p>Honek pilotetako bat beste ikaskide bati pasako dio eta galdera bat egingo dio emozio baten inguruan. Adb:</p> <p>–Noiz sentitu zara haserre?</p> <p>Erantzuna emango du.</p> <p>Beste pilota beste ikaskide bati botako dio eta galdetuko dio:</p> <p>– Zergatik sentitu zen haserre?</p> <p>Honek erantzun egingo dio: – Nire uste...–Nik esango nuke...– Iruidtzen zait...</p> <p>Eta ondoren lehenengo erantzuna emango duenari botako dio pilota.</p> <p>– Horregatik izan zen?</p> <p>Honek erantzuna emangio du: Bai, horregatik izan zen / Ez, gatik izan zen.</p> <p>Honek berak bi pilotak izango dituenez, bera hasiko da beste batekin.</p> <p>Zenbait aldiz eta zenbait egunetan errepikatu dezakegu dinamika.</p>

Erabilera irekia	<p>Jarduera: Aisialdian egindako zerbaiti buruzko iritzia ematea</p> <p>Ekitaldi edo egoera bereziak egon diren garaien ondoren, ahozkoa lantzeko erabiltzen diren tarte batzuetan, ikasleei beraien iritzia, sentrazioak eta bizipenak azaltzeko eskatuko diegu. Adibidez:</p> <ul style="list-style-type: none">- Ekitaldi bereziak egon diren asteburuen ondoren: Ibilaldia, Korrika, kontzertu edo ekitaldi bereziren bat...- Ikastolako jaialdi edo txangoen ondoren- Ikasle batek edo batzuek zerbait ezberdina edota berezia egin dutela jakin dugunean <p>Beraz, ikasle bati edo batzuei berain bizipena eta sentrazioak kontatzeko eskatuk diegu, eta besteek galderak egiteko aukera izango dute.</p>
-------------------------	--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Albistea	Informazioa ematea	Albiste bat ematea (albiste nagusiak)
-------------	----------	--------------------	------------------------------------------

Albiste bat ematea (albiste nagusiak)	
Abiapuntua	Albisteei buruz hitz egingo dugu denon artean. Zein izan dira azken egunetako albiste deigarrienak? Zer duten buruan? Zeintzuk izan dira herriko albistek? Zeintzuk Euskal Herrikoak? Zeintzuk internazionalak? Kiroletakoak?... Ahozko albistek duten egiturari buruz hitz egin dezakegu beraiekin
Erabilera itxia	<p>Pilota elkarri: Albiste zoroak sortzen</p> <p>Arbelean bi zutabe idatziko ditugu. Zutabe batean denbora adierazteko hitzak egongo dira: hasieran, ondoren, bitartean, aurretik...</p> <p>Bestean albiste batekin lotu daitezkeen egoerak egongo dira: istripua, anbulantzia, ospitalea, medikua, kotxea, autobusa... Zerrenda luzea izan behar du.</p> <p>Ikasleak borobilean jarriko dira. Pilota bat hartuko dugu. Galdera honekin hasiko gara:</p> <p>– Zer gertatu zen atzo?</p> <p>Pilota taldeko bati pasako diogu. Berak hasiera emango dio zutabe bateko osagaietako batekin. Adibidez: – Atzo istripu bat gertatu zen, edo atzo anbulantzia bat ikusi nuen, edo atzo autobusa ez zen ikastolara iritsi...</p> <p>Hori esandakoan pilota beste kide bati pasako dio, eta pasa aurretik beste zutabeko hitz batekin egingo dio galdera:</p>

	<p>-Zer gertatu zen aurretik?, edo zer gertatu zen ondoren?, edo zer gertatu zen bitartean?...</p> <p>Honek lehen zutabeko elementu bat aukeratuko du erantzuteko eta pilota beste bati pasa eta beste galdera bat egingo dio.</p> <p>Beti zutabeetatik aukeratu behar dute eta ezin dira errepikatu behin erabilitakoak. Galdera erantzun batzuen bidez albiste zoro bat sortuko dugu.</p> <p>Zutabeetako edukiak aldatuz, behin baino gehiagotan egin daiteke dinamika.</p> <p>Behar bada komenigarria da jolasten hasi aurretik aukera ezberdinak zein izan daitezkeen beraiekin aztertzea dinamika ondo ulertzeko, irudikatzeko eta barneratzeko.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Ibilbide aldrebestua: Ordenatu albistea</p> <p>Taldeka jarriko ditugu. Taldeko kide bakoitzari albiste baten zati bat emango diogu. Elkarrekin hitz eginaz albistea antolatu behar dute eta ondoren beste taldeetakoiei kontatu bakoitzak bere zatia esanaz.</p> <p>Adibidez: Lapurreta bati buruzko albistea</p> <ul style="list-style-type: none"> - Orain dela gutxi gertatu den albiste bat kontatu nahi nizuen - Gaur goizean lapurreta egin dute herriko bankuan - Badirudi goizean, bankua ireki aurretik, ondoko kale batean pertsona batzuk ezkutatu direla - Beraiek ezkutatu ondoren, bankuko zuzendaria iritsi da eta atea irekitzen hasi da -Atea irekitzen ari zela eraso egin diote eta banku barrura sartu dira -Banku barruan zeudenean, diru guztia emateko eskatu diote -Dirua hartu dute eta bankutik atera dira -Bankutik atera direnean kotxe batera igor dira eta laster batean alde egin dute <p>Hori izango litzateke ordenean, baina guk beraietako bakoitzari atal bat ematean, elkarrekin hitz eginaz iritsi behar dute orden horretara eta orduan azaldu</p> <p>Modu horretako albistek prestatu ditzakegu talde bakoitzari ezberdin bat emateko.</p>

	<p>Simulazio dinamika: Telebista aurkezleak</p> <p>Taldeka jarriko ditugu. 3 edo 4 kideko taldeak. Talde bakoitzak telebista saio bat simulatu behar du. Beraietako bat aurkezlea izango da, eta besteak berri-emaileak. Beraz:</p> <ul style="list-style-type: none"> -Aurkezleak programa aurkeztu behar du -Berri emailei sarrera eman behar die -Berri emaile bakoitzak gai baten inguruko albisteak asmatuko du: gizartea, kirola, klima... -Aurkezleak eskerrak eman eta besteei sarrera egingo die -Programari amaiera emango dio <p>Simulazioa egin aurretik informatiboetako saioen egiturari buruz hitz egin dezakegu beraiekin, eta nahi izan ezker hori bisibilizatu dezakegu testu-eredugarri batekin: ETBko albistegi batekin, adibidez.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Albiste bat aukeratzea eta horren berri ematea</p> <p>Astean egun batean ikasleetako batek albiste bat aukeratuko du. Berak nahi duen gaiari buruzko: gizarte gaiak, kirola, klima... Albisteak zergatik aukeratu duen esango du eta informazioa emango du. Eskatuko diegu: gaia kokatzeko eta informazioaren mamia azaltzeko. Irudiak edo egunkarien azalak ere erabil ditzakete tresna lagungarri moduan. Ondoren, galdera erantzunak egingo dira.</p> <p>(Beste aukera bat izan daiteke albisteak biren artean ematea, eta elkarrizketa moduan edo egitea)</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Albistea	Sentimendu, iritzi edo argudioak	Albiste bati buruzko iritzia
-------------	----------	----------------------------------	------------------------------

Albiste bati buruzko iritzia	
Abiapuntua	<p>Albisteak nolakoak izan daitezkeen galdetuko diegu ikasleei. Albiste bat irakurtzen edo entzuten dugunean, nolakoa izan daiteke? Adibide pare bat emango dizkiegu eta zerrenda bat osatuko dugu denon artean: pozgarria, tristea, ona, txarra...</p> <p>Albiste baten izenburua irakurriko diegu. Zein ezaugarriekin lotu daiteke? Zergatik? Bakarrarekin bakarrik? Iritzi trukea egingo dugu.</p> <p>Berdina egingo dugu beste bi edo hiru albistekin.</p>
Erabilera itxia	<p>Hiru lerroan: albisteei buruzko iritziak</p> <p>Hiru kide arbelera aterako dira. Bat albistea ematen duena izango da, eta beste biak <i>Hiru lerroan</i> jolaseko postitak jarriko dituztenak.</p> <p>Albisteak ematen dituenari albisteen izenburuekin zerrenda bat emango diogu: <i>Atzo Atletikek berdindu egin zuen, Kale nagusia konpontzeko lanak atzo amaitu ziren...</i></p> <p>Arbelean hiru lerroan taula bat idatziko dugu:</p>

<p>Zer iruditzen zaizu? albiste ona da... Baina albiste txarra ere bada...</p>	<p>Gauzak hobera egingo dutelako</p>	<p>Nik hori nahi nuelako</p>	<p>Denoi komeni zaigulako</p>
<p>Hobeto egin zezaketelako</p>			
<p>Ezin izan nuelako ikusi</p>			
<p>Batzuk min hartu zutelako</p>			

Albistea eman behar duenak lehen albistea eman behar du. Postita duenetako batek taldekide bati bi galderak egingo dizkio. Honen erantzunaren arabera postita jarriko du taulan. Ondoren, beste albiste bat eman eta beste kideak egingo du galdera.
 Helburua bietako batek hiru lerroan egitea da.

Belarrira albistea: zein informazio iritsiko da amaierara?
 Borobil batean jarriko dira. Irakasleak taldeko bati belarrira albiste on bat emango dio. Adibidez: Minbizia sendatzeko botika berri bat aurkitu dute. Oso albiste ona da hori. Ni asko pozten nau nire lehengusu bat gaixo dagoelako eta sendatzeko aukera emango diolako.
 Ikasle hori eskuinaldera albistea belarrira esaten hasiko da: berak bati, harek bere eskuinekoari...
 Aldi berean beste kide bati albiste txar bat emango diot eta hau bere ezkeraldera hasiko da informazioa ematen: Euriteen ondorioz metroa itxi behar izan dute. Hori albiste penagarria da. Horren erruz hainbat jendek ezingo du lanera joan edo arazoak izango dituzte.
 Zein albiste iritsiko da amaierara? Zein informazio?
 Beste albiste batzuekin ere berdina egin dezakegu

<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Zein da albistea?</p> <p>Talde bakoitzari albiste bat emango diot. Ahoz, beraien artean, albiste horri buruzko iritzia landu behar dute (arbelean jar ditzakegu hainbat ezaugarri lagungarri izan daitezkeenak). Batez ere argudioak axola zaizkigu eta horretan oso zehatzak izatea.</p> <p>Talde bakoitzak bere albistearen iritzia emango die beste taldeetakoiei, eta hauek albistea zein den asmatu behar dute.</p> <p>Adibidez: albiste hau oso txarra eta negargarria da. Sutearen ondorioz jende asko etxerik gabe geratuko zen eta hori konpontzea ez da erraza. Orain kiroldegian omen daude baina ezingo dute denbora asko bertan egon. <i>Zein da albistea?</i></p> <p>Argudioak ondo lantzeraz eta informazio egokia ematera begira, irakaslea taldez talde laguntzen ibiltzea garrantzitsua da.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Albiste bati buruzki iritzia ematea</p> <p>Ahozko jarduera laburren beste atal bat <i>Albistea ematea da</i>. Jarduera horretan erabilera irekia honakoa da: astean egun batean ikasle batek albiste bat ematea.</p> <p>Beste ikasle bati albiste horri buruzko iritzia emateko eskatuko diogu. Aukera ezberdinak egon daitezke:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Momentuan bat batean ematea • Aurretik jakitea zein den albistea eta iritzia prest ekartzea • Hurrengo egunerako iritzia prestatzea eta orduan ematea <p>Ondoren, galdera erantzunak egingo dira.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Eguraldia	Aholkuak	Eguraldiaren arabera zer hartu kontuan (arropa...)
-------------	-----------	----------	----------------------------------------------------

Eguraldia: bihar nola jantzea komeni den azaltzea	
Abiapuntua	<p>Gaia: Zer komeni den eta zer ez den komeni zerrendatzea</p> <p>Jarduera: Erantzunak gehitzen</p> <p>Saio batean zerrendatu egingo dugu hotza, beroa, euria edo haizea egiten duenean nola jantzita joatea komeni den.</p> <p>Hotza egiten badu: komeni da... eta ez da komeni...</p>
Erabilera itxia	<p>Saio batzuetan zerrenda landuko dugu ahoz. Ikasleetako bati hasteko esango diot: Hotza egiten badu... zer komeni da? Honek erantzun egingo du, hurrengoak beste bat gehituko du, hurrengoak beste bat... Adibidez: Txamarra on bat jartzea, azpiko erropa jartzea, galtzerdi potoloak jartzea... Momentu batean eten egingo du eta hurrengoari esango dio: eta zer ez da komeni? Galtza motzak jartzea, txankletak jartzea... Eta beroa egiten badu zer ez da komeni?...</p> <p>Jarduera: Hizkuntza-jolasa 1-2-3-4-5-6-Hotz egingo du</p> <p>Ikasleetako bat 1 zenbakitik hasiko da eta hurrengoek zenbakiak esaten jarraituko dute. 7 zenbakia ezin da esan, horren orde esaldi hauetako bat esan daiteke: Hotza egingo du - Beroa egingo du - Euria egingo du. Beraz: 1-2-3-</p>

	<p>4-5-6-Hotz egingo du-1-2-3-4-5-6-Beroa egingo du...</p> <p>Ondoren, beste hau gehituko diogu: Zer jantziko duzu?, edo, Zer ez duzu jantziko?</p> <p>1-2-3-4-5-6-Hotza egingo du-Zer jantziko duzu-1-2-3-4-5-6-Beroa egingo du-Zer jantziko duzu?...</p> <p>Azkenik, erantzuna gehituko diogu: aurreko galderaren arabera izan behar du erantzunak</p> <p>1-2-3-4-5-6-Beroa egingo du-Zer ez duzu jantziko?-Berokia ez dut jantziko-1-2-3-4-5-6-7-Euria egingo du-Zer jantziko duzu?-Katiuskak jantziko ditut...</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Jarduera: Taldekako lehiaketa "Zer komeni zaigu?"</p> <p>Taldetxoak egingo ditugu, 3 edo 4 kideko taldeak.</p> <p>Talde bakoitzak zerrenda bat idatzi behar du aholkuak eskatuz. 10 esalditako zerrenda izan behar du. Adb:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Zer komeni zaigu? Bihar euria egingo duenez... • Zer komeni zaigu? Arratsaldean beroa egingo du eta horregatik... • Zer komeni zaigu? Haize handia egingi duenez... <p>Ondoren, talde bakoitzak galderak egingo dizkie besteei. Erantzun bakoitzeko puntu bat: ondo erantzuten badute beste taldearentzat, gaizki erantzuten badute galdera egin duen taldearentzat.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Egunero aholkuak ematea</p> <p>Egunero, azken orduan edo, ikasleetako batek eguraldiaren iragarpena egimngo du eta horren arabera nola janztea komeni den azalduko du.</p> <p>Adib: Goizean fresko egingo duenez jertsearekin etortzea komeni da, baina eguerdirako epeldu egingo du eta ez ekarri arropa gehiago ere. Hori bai: bihar soinketa dugu...</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Eguraldia	Informazioa	Eguraldiaren berri ematea
-------------	-----------	-------------	---------------------------

Eguraldia: eguraldiaren berri ematea	
Abiapuntua	<p>Eguraldiari buruz hitz egingo dugu eta eguraldia nolakoa izan daiteekn galdetuko diegu. Zer bururatzen zaie?</p> <p>Galderak egingo dizkiegu eta zerrenda osatuko dugu:</p> <p>Euria nola egin dezake? Xirimiria, zaparrada, euri jasa...</p> <p>Beroa nolakoa izan daiteke? Atsegina, sargoria, bero sapa...</p> <p>Elurra... Haizea...</p>
Erabilera itxia	<p>Bikoteak osatzen lehiaketa</p> <p>Borobil batean jarriko ditugu</p> <p>Arbelean, denen bistan, eguraldiaren elementuak (euria, beroa, hotza...) eta nolakoa izan daitezkeen (atsegina, sargoria...) egongo dira zerrendatuta</p> <p>Ikasleetako bat hasiko da eta bere eskuinekoari ezaugarri bat esango dio. Adib: zaparrada. Eta honek zein elementurekin lotzen den esan behar du azkar azkar. Asmatzen badu, hurrengoair berak beste ezaugarri bat esango dio eta honek elementu batekin lotu.</p> <p>Zailagoa edo diberigarriagoa egiteko moduak:</p>


	<ul style="list-style-type: none"> • Huts egiten dutenak borbiletik ateratzea, eta beraz, gero eta gutxiago geratuko dira • Pertsona berdinari jarraian 10 ezaugarri galdetzea eta zenbat asmatzen dituen kontatzea • ... <p>Esketxak: Gu bai exageratuak!</p> <p>Esketx labur laburrak proposatuko dizkiegu eta behin baino gehiagotan egingo ditugu. Bi-hiru ikaslek egiteko esketxak izango dira. Baina oso oso laburrak. Adibidez:</p> <p>Bi bizilagunek portalean egiten dute topo. Bat etxetik ateratzera doa eta bestea sartzen ari da.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Egun on! - Egun on, bai! - Zer moduzko eguraldia egiten du gaur? - Eguzkia atera da eta giro goxoa dago - Ze ondo! Laster arte! - Agur! <p>Behin baino gehiagotan irakurriko dugu eta gero ikasle batekin irakasleak esketa egingo du.</p> <p>Bi-hiru aldiz egin dugunean, giro goxotik gero eta beroagaora pasatzen hasiko gara. Adibidez: zer iruditzen zaizue giro goxoa egitea duela esan beharrean bero pixka bat egiten duela esatea? Eta errepikatuko dugu. Eta ondoren: eta bero pixka bat egin beharrean bero handia egiten badu? Eta sekulako beroa egiten badu? Eta inoiz baino bero gehiago egiten badu? Eta errepidea urtutzen ari bada beroagatik eta zapatilak ere lurrean itsatsita geratzen badira? Zenbai aldiz errepikatuko dugu eta antzezterakoan keinuetan eta tonuan ere antzemena behar da.</p> <p>Berdina egin dezakegu hotzarekin, euriarekin, haizearekin...</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Ibilbide aldrebestua: Datorren asteko eguraldia.</p> <p>Taldetxoetan jarriko ditugu. Taldetxo bakoitzeko kide bakoitzari aste osoko eguraldiaren zatitxo bat emango diogu (ahoz soilik emangio bagenie, hobe). Taldetxoko kideak elkartzen direnean, aste osoko eguraldi iragarpena ordenatu behar dute eta beste taldeei eman.</p>

	<p>Lehiaketa moduan egin daiteke (denei ibilbide bera eman eta ea nork ordenatzne duen lehendabizi) edo lehiaketa izan gabe (talde bakoitzari ibilbide ezberdina emanda)</p> <p>Adibidez:</p> <p>Astelehena eguzkiarekin baina eguraldi freskoarekin hasiko dugu hasiko dugu.</p> <p>Eta horrela izango da asteburu osoan zehar.</p> <p>Astearte eguerdi aldera eguraldia okertu egingo da eta euri jasa handia botako du, uholdeak ere egoin daitezke.</p> <p>Ostiral arratsaldetik aurrera eguraldia bikaina izango da. Udaberriko egun zoragarriak izango dira.</p> <p>Astelehen iluntzerako lainotu egingo da eta euria hasiko du, ez du zaparrada handirik botako</p> <p>Asteazken arratsaldea baino lehen atertu eta peldu egingo du, giro goxoa izango dugu</p> <p><i>Egitura batzuk aldatuz eta eguraldi iragarpeneko elementu batzuk, ibilbide aldrebes berriak sortu ditzakegu.</i></p> <p><i>Dinamika behin baino gehiagotan egin dezakegu.</i></p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Astebururako eguraldiaren berri ematea</p> <p>Ostiraletan, ikasleetako batek asteburu osorako eguraldiaren iragarpena egingo du</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Lagunartea	Aholkuak	Lagunentzako aholkuak
-------------	------------	----------	-----------------------

Lagunartea: Lagunentzako aholkuak	
Abiapuntua	<p>Elkarrizketa bat sortuko dugu. Nolako aholkuak ematen ditugun edo eman daitezkeen ikusi nahi dugu.</p> <p>Lagunei ematen al dizkiegu aholkuak? Edo lagunek ematen al dizkigute aholkuak?</p> <p>Adibidez: Galdetu izan al digute opariren baten inguruan? Norbaiti opariren bat egin nahi diotela eta ez dakitela zer oparitu? Nola laguntzen diegu? Nolako aholkuak eman izan dizkiegu?</p> <p>Eta arroparen inguruan? Zer jantzi, zer erosi...</p> <p>Eta norbaitek duten harreman edo arazoren baten inguruan?</p> <p>Aiaptutako ideiak arbelean jartzen ahaleginduko gara</p>
Erabilera itxia	<p>Pilota elkarri: aholkuak eskatzen</p> <p>Zutabe batean galdera batzuk jarriko ditugu janzkerari buruz: Galtza motzak jarri behar nituzke? Txamarra ekarri behar nuke? Sandaliak jantzi behar nituzke? 10 edo 12 izan daitezke, adibidez.</p> <p>Beste zutabeen arrazoiak jarriko ditugu: Eguraldi ona egingo duelako, Bero handia egingo duelako, Euria egingo duelako... Hauek ere 10-12 izan daitezke.</p>

	<p>Ikasleetako bati pilota emango diot. Honek galdera egin eta beste bati pasako dio pilota: "Bihar sandaliak jantzi beharko nituzke?" Pilota jaso duenak "Bai" edo "Ez" erantzun eta pilota itzuliko dio. Honek "Zergatik?" galdetuko du eta beste bati pasako dio pilota. Hirugarren honek bigarren zutabeko erantzun bat eman behar dio. Erantzuna eman duena hasiko da bigarren galdera batekin eta zenbait aldiz egingo dugu dinamika. Janzkerari buruz aritzeaz gain, beste aholku batzuen inguruan ere egin daiteke dinamika bera.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Irudi xelebrea agertzen diren "lagunei" aholkuak ematen</p> <p>Pantailan itxura oso xelebrenko pertsonai batzuen irudiak jarriko ditugu eta aholkua eskatzen agertuko dira. Ikasleak taldetxotan jarriko ditugu eta aholkuak prestatu behar dituzte. Ondoren denon arteko elkarrizketa sortuko dugu aholkuak eman eta zalantzak ere aipatzeko.</p> <p>Adibidez: Haurrentzako jai bat girotzeko eskatu didate eta pailazo moduan joatea pentsatu dut. Zer iruditzen zaizue? Horrela ondo? Aholkuren bat?</p> 
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Aholkuen kutxa</p> <p>Aholkuen kutxa jarriko dugu ikasgelan. Itsulapiko moduko bat izango da eta astean zehar, nahi duenak, aholkuak eskatu ahal izango ditu paper batean idatziz. Noski, hainbatetan gogoraraztea eta animatzea komeni da. Nahi duten gaiei buruzko aholku eskariak izan daitezke: erropari buruz, opariei buruz edo dena delakoa. Ostiralean, aholkuak aterako ditugu eta irakurriko ditugu. Banan bana nork erantzun nahi duen galdetuko dugu. Erantzuna emango du eta besteek ere iritzia emateko aukera izango dute.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Lagunartea	Deskribapenak	Lagunen ezaugarriak
-------------	------------	---------------	---------------------

Deskribapenak: lagun ezaugarriak	
Abiapuntua	<p>Bideo batean persona bat bere lagun bat deskribatzen jarriko diegu. Ondoren, bertan agertzen dena bistaratuko dugu elkarrizketaren bidez: zein ezaugarri aipatzen ditu? Nola ezaugarriak dira?</p> <p>Ezaugarriak multzokatuko ditugu. Besteak beste: fisikoak, afektiboak eta ohiturei dagokiena (nola janzten den, egunero ezin errutina dituen...).</p> <p>Kartulinetan multzo horietako bakoitza jarriko dugu eta denon artean ezaugarrien zerrenda luze bat egingi dugu. Kartulian horiek paretean itsatsiko ditugu.</p>
Erabilera itxia	<p>Ezaugarria gehitzea: Nolako da zure laguna?</p> <p>15 emotikono prestatuko ditugu eta ezaugarriak idatziz jarriko ditugu: alaia, atsegina, jatorra... Horietako bost aukeratuko ditut eta besteak albo batean utziko ditut. Bost horiek denon bistan jarriko ditugu. Ikasleetako bati erdira ateratzeko eskatuko diot. Besteak begiak itxi behar dituzte. Honek falta de emotikono bat hartuko du eta beste bostekin batera jarri: lekuz aldatu ditzake nahasgarria egiteko.</p> <p>Begirak irekiko dituzte eta erdina dagoenak taldeko bati galdetuko dio: Nolako da zure laguna? Eta honek agertu</p>

	<p>den ezaugarri berri hori erabiliz erfantzun behar dio: Nire laguna oso jatorra da. Asmatzen badu bera aterako da erdirfa, eta ez badu asmatzen beste bati galdetuko zaio.</p> <p>Emotikonoak gehitzen eta nahasten jarraituko dugu.</p> <p>Dinamika errepikatu dezakegu ohitrei dagozkien ezaugarriekin edo ezaugarri fisikoekin.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Borobilean ezaugarriak esaten</p> <p>Bi borobil egingo ditugu, bata bestearen barruan. Kanpokoak barrura begira eta barrukoak kanpora begira. Musika jarriko dugu. Musika geratzean parean dutenarekin hitz egin behar dute. Elkar agurtu eta batak besteari hiru ezaugarri positibo esan behar dizkio: bat fisikoari edo itxurari dagokiona, beste bat izaerari dagokiona eta beste bat ohiturei dagokiona.</p> <p>Hizkuntza errutina bat erabiltzeko eskatuko diegu. Adibidez: Kaixo aspaldiko! Zer moduz? Gauza bat esan nahi dizut...</p> <p>Eta ondoren ezaugarriak esan: Ile oso polita daukazu, oso jatorra zara eta ikasketekin asko saiatzen zara.</p> <p>Ondoren besteak berdina egingo du.</p> <p>Beti kanpoko borobilekoak hasiko dira hizketan.</p> <p>Zenbait aldiz errepikatuko dugu dinamika.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Nor da nor?</p> <p>Bikoteak egingo ditugu. Bikote bakoitzari bi taldekideren izenak emango dizkiegu.</p> <p>Bideo labur batean kide horien ezaugarriak azaldu behar dituzte baina izena esan gabe: gutxienez ezaugarri fisiko bat, afektibo bat eta dituen ohiturekin lotutako bat. Noski, ezin dela minik egin argi ikusi behar dute.</p> <p>Saio batzuetan zehar bi edo hiru bideo jarriko ditugu, eta taldekideek nori buruz ari diren asmatu behar dute.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 3 zikloa	Ordutegia	Jarraibideak	Egun baten antolaketa
-------------	-----------	--------------	-----------------------

Ordutegia: Egun baten antolaketa azaltzea																		
Abiapuntua	<p>Gaia: egun batean zer egiten dugun zerrendatzea Jarduera: Zerrenda luzea egitea Saio batean, elkarrizketa bidez, egun batean egin ohi ditugun gauzen zerrenda egingio dugu: jaikitzean..., jaiki ondoren..., gosaldu ondoren... Helburua: ahalik eta zerrenda luzeena egitea Nahi izan ezkerro, beste saioen batean igande batean zer egiten dugun zerrendatu dezakegu, edo txango bat egin genuenean zer egin genuen, eta ikastolako jaialdiaren eguna nola izango den (programa eskutan hartuz)...</p>																	
Erabilera itxia	<p>Jarduera: Hizkuntza-jolasa <i>Hiru lerroan</i> Zenbait saioetan hizkuntza-jolas hori egingo dugu baina galderetan agertzen diren egiturak aldatuz. Adibidez:</p> <table border="1" data-bbox="481 1045 2004 1300"> <thead> <tr> <th colspan="2"></th> <th colspan="3">Nora joango zara ikastolatik atera ondoren?</th> </tr> <tr> <th colspan="2"></th> <th>Etxera</th> <th>Mendira</th> <th>Kalera</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Zer egingo duzu</td> <td>Eskolako lanak</td> <td></td> <td></td> <td></td> </tr> </tbody> </table>					Nora joango zara ikastolatik atera ondoren?					Etxera	Mendira	Kalera	Zer egingo duzu	Eskolako lanak			
		Nora joango zara ikastolatik atera ondoren?																
		Etxera	Mendira	Kalera														
Zer egingo duzu	Eskolako lanak																	

ikastolara etorri aurretik?	Abestu			
	Gosaldu			
<p>Hiru lerroan dinamika: Arbelean taula jarriko dugu eta bi ikasle aterako dira erdira. Bakoitzari hiru postit emango dizkiogu. Bati kolore batekoak eta besteari bestekoak. Galdezka hasiko dira beste ikaskideei: <i>Zer egingo duzu ikastolara etorri aurretik? Ikastolara etorri aurretik abestu egingo dut, eta Nora joango zara ikastolatik ateratzean? Ikastolarik ateratzean mendira joango naiz.</i> Ondoren, bigarrenak beste bati egingo dizkio bi galderak. Horrela jarraituko dute, txandaka, norbaitek 3 lerroan osatu arte.</p> <p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Hizkuntza-errtuinaren garrantzia: galdetzen duenak eta erantzuten duenak, biek, esaldi oso osoak erabili behar dituzte • Postit gabe geratzean: hiru postitak jarritakoan erdian daudenek ez dute gehiago izango. Handik aurrera, beraiek bat kenduko dute arbeletik (beraien ustez komenigarriena dena) eta hori eskutan dutela berriz galderak egingo dituzte. 				
		Zer egingo duzu lehendabizi?		
		Jantzi	Gosaldu	Ohea egin
Zer egingo duzu aldi berean?	Hortzak garbitu			
	Aurpegia garbitu			

		Pixa egin			
	...				
Erabilera bideratua	<p>Dinamika: Argazkian agertzen dena asmatzea.</p> <p>Musika jarriko dugu eta kutxa bat emango diogu ikasleetako bati. Kutxa hori eskuz esku pasa behar dute. Musika mortuko dut eta une horretan kutxa eskuetan duenak ireki egingo du. Bertan, argazki edo marrazki batean, ekintza bat agertu da eta ordua ere bai (janzten ari da, jaten ari da, hortzak garbitzen...)</p> <p>Hizkuntza-errutina baten laguntzaz galdera erantzun dinamika egingo dugu. Kutxa eskuetan duenak berak nahi duenari honakoa galdetuko dio:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Miren, bihar hemen agertzen dena egingo dut</i> • <i>Zer egingo duzu? Ikastolara etorriko zara?</i> • <i>Hori bai, baina horren ondoren egingo dut, edo hori baino beranduago egingo dut, edo...</i> • <i>Ander, bihar hemen agertzen dena egingo dut</i> • <i>Zer egingo duzu? Ohera joango zara?</i> • <i>Hori bai, baina hori baino goizago izango da, horren aurretik izango da...</i> <p>Oharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Behar bada zerrenda bat idatzita eta bistan izatea komeni zaigu: aurretik, ondoren, beranduago... • Hizkuntza-errutinaren garrantzia: behin eta berriz galdera joko bera ondo erabiltzea komeni da, laburtzen ez uztea. Hau da: <i>Bihar hemen agertzen dena egingo dut. Zer egingo duzue? egingo duzu? Hori bai, baina...</i> 				
Erabilera irekia	<p>Dinamika: Gezurrak esaten</p> <p>Egunero, ikasleetako batek, bezperan zer egingo duen edo asteburuan zer egingi duen azaldu behar du.</p> <p>Azalpen horretan bi gezu sartu behar ditu, baina disimulatu behar du besteak ez konturatzeko.</p> <p>Besteek gezurrak zein diren asmatu behar dute. Azalpen osotik bi aukeratu behar dituzte denen artean. Horiek ote dira?</p>				

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Eguraldia	Informazioa	Eguraldiaren berri ematea
-------------	-----------	-------------	---------------------------

Eguraldia: eguraldiaren berri ematea	
Abiapuntua	Bi edo hiru saiotan, hasieran edo, eguraldiari buruz hitz egingo dugu: Zer eguraldi egingo du gaur? Nola dakizue? Zer ikusi duzue? Zer entzun duzue? Eta ematen dituzten iritziak galderen bidez osatzen jarraituko dugu: Eta haizea egingo du? Indartsua edo ahula? Zein izango da teneperatura? Hori beroa edo hotza da?...
Erabilera itxia	<p>Soinudun kontakizuna</p> <p>Ipuin edo kontakizun bat irakurriko diegu eta beraiek ateratzen diren elementuei jarraituz keinuak eta soinuak egin behar dituzte. Adibidez:</p> <p><i>Mikel etxetik atera zenean haize handia egiten zuela konturatu zen, haize oso oso indartsua (ikasleek haizearen soinua egin behar dute) eta horregatik arropari gogor heldu behar izan zion haizeak ez eramateko (keinua egin behar dute). Ikastolara iritsi zenean lasaitu egin zen baina berogailua jarita zegoene eta beron handia sentitzen hasi zen, sekulako beroa egiten zuen...</i></p> <p>Horrelako kontakizun errazak prestatu daitezke eta soinuekin eta keinuekin jolastu.</p> <p>Gainera, beste hainbat aukera ere egon daitezke: kontakizunak beraiek prestatzea, taldeka egitea (taldeko batek irakurri eta besteak egin) eta beste taldeetakoek ikustea une horretan, eta abar.</p>
	<p>Mimo jolasa: Zer eguraldi egiten du?</p> <p>Talde txikiak egingo ditugu. Txandak, talde bakoitza erdira aterako da. Sekuentzia bat emango diet. Adibidez:</p>

	<p>etxetik atera dira, beroa sumatu dute eta zerbait kendu dute, baina gero hotza sumatu dute eta berriz jarri dute eta gero bat batean kazkabarra hasi du eta korrika atera dira.</p> <p>Sekuentzia hori egin behar dute eta beste taldeek hitzen bidez azaldu behar dute zer gertatu den.</p> <p>Hainbat sekuentzia prestatu ditzakegu eta umorea ere sar dezakegu: putzuan irrits egin, aterkia puskatu...</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Oroitzapenak marraztu eta elkar kontatu</p> <p>Ikasleetako bakoitzak orri bat izango du. Oroitzapen bat marrazteko eskatuko diegu: Gogoratzen duzuen bero handia egin zuen egunen bat? Zer egin zenuten edo non zeundeten? Marrazki bat egin minutu batean oroitzapen horrekin.</p> <p>Ondoren, musika jarriko dugu eta gelan zehar ibiltzen hasiko dira marrazkiarekin. Musika geratzean bikoteak osatu behar dituzte. Batak besteari bere oroitzapena kontatu behar dio.</p> <p>Bigarren galdera bat egingo diegu. Gogoratzen duzue elurra egin zuen egunen bat? Zein da oroitzapena? Berriz marraztu (beste marrazkiaren ondoan edo azpian), musika jarri eta elkar kontatu.</p> <p>Zenbait aldiz egin dezakegu.</p> <p>Amaitzeko, eta denbora ematen badu, marrazkiak pareta batean jar ditzakegu eta marrazkietan agertzen denari buruz galdetuz oroitzapenak kontatzeko eskatu.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Gaur egingo duen eguraldia azaltzea</p> <p>Ikasgelan zenbait paretan itsasteko zenbait txartel multzo prest izango ditugu.</p> <p>Adibidez:</p> <p>1–Eguzkia/ Eguzkia lainoa–lainoa / Lainoa euri pixka bat / Lainoa euri asko.</p> <p>2–Haizerik ez / Haize pixka bat / Haize handia</p> <p>3– Termometroa (eta tenperatura idatzeko aukera)</p> <p>Goizero, ikasleetako batek eguraldiaren ieragarpena egingo du. Horretarako txartel multzo bakoitzetik bat aukeratu behar du, tenperatura ere idatzi, eta txartelak paretean jarri. Hori egindakoan azalpena emango du.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Albistea	Informazioa ematea	Albiste bat ematea (gertuko gaiak)
-------------	----------	--------------------	---------------------------------------

Albiste bat ematea (gertuko gaiak)	
Abiapuntua	<p>Albiste bat emango diegu. <i>Adibidez: hemendik bi astetara txango bat egingo dugu. Txangoa nora izango den, zer behar duten, gurasoentzako oharra noiz bidaliko den eta abar azalduko diegu.</i></p> <p>Albisteei buruz hitz egiten jarraitu nahi dugula esango diegu. Gertuko albisteei buruz: gure inguruan gertatzen direnak eta gurekin zerikusi zuzena dutenak. Bururatzen zaie datozen asteetako albisteren bat? Edo azken asteetan gertatu eta kontatzeko modua den zerbait? Ez bazaizkie bururatzen, guk lagunduko diegu: <i>Gertatu al da herrian gauza bereziren bat? Laster izango al da jaialdi edo festaren bat? Norbaitek parte hartu behar al du kirol ekitaldi bereziren batean?...</i></p> <p>Albiste bat ematen dugunean zer hartzen dugu kontuan? Nola ematen da? Elkarriketa sortuko dugu eta gure galderekin lagunduko diegu: <i>Albistea izateko zerbait berezia izan behar du edo eguneroko gauza bat?, Interesa sortu behar du ingurukoengan?, Zein informazio eman behar da?, Egituraren bat izan behar du? (adibidez: aurrena ideia nagusia edo izenburua eta gero azalpenak), Gure iritzi sar dezakegu edo soilik informazioa da?...</i></p>
Erabilera itxia	<p>Laukotea osatze: osatu zuen albistea!</p> <p>Zerbait albiste labur osatuko ditugu, bakoitzak lau atal izango ditu. Adibidez: izenburua edo ideia nagusia,</p>

	<p>azalpenaren lehen zatia, azalpenaren bigarren zati eta balorazioa edo iritzia. Adibidez: <i>Datorren astean txango bat egingo dugu (1), txangoa Sopelara izango da (2), egun osoko txangoa izango da eta bazkaria eraman behar da (3), ziur primeran pasako dugula! (4)</i></p> <p>Patioan zehar (edo espazio zabal batean) ibiltzen hasiko dira. Musika jarriko dugu. Musika geratzean inguruan duten norbaitengana hurbildu eta beraien esaldi zatia esango dute. Bat egiten badute, elkarrekin jarraituko dute. Berriz musika jarri, berriz geratu, bakoitzak inguruko bati esan eta poliki poliki laukoteak osatu behar dituzte. Laukotea osatzen dutenak irakaslearengana hurbilduko dira. Denak osatutakoan, laukote bakoitzak bere albiste irakurriko du ozen eta beste guztiek ondo entzuteko moduan.</p> <p><i>Oharra: Albisteen atalak oso lotuta egon behar dute elkarrekin. Ez dugu nahi albisteak nahasterik.</i></p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Azalpen katea: Albisteak</p> <p>Boluntario batzuk eskatuko ditugu eta, bat ezik, besteak gelatik aterako dira.</p> <p>Ikasgelan gerfatu direnei albiste bat emango diet. Nahiko azalpen luzearekin (xehetasun batzuk sartuz) baina atalak oso ondo bereiziz.</p> <p>Kanpotik bat sartuko da eta ikasgelan feratu den boluntarioak emango dio azalpena: sartu denak galderak egin ditzake baina soilik azalpena eman dionak erantzun diezaioke, besteek ezin dute parte hartu.</p> <p>Ondoren beste bat sartuko da eta azalpena azkena entzun duenak errepikatu egingo dio. Banan bana hori egingio dute, azkenekoa sartu eta azalpena entzun arte.</p> <p>Zein informazio helduko da amaierara? Une horretan atal bakoitza ondo azpimarratuz albiste berriz aztertuko dugu, eta zer galdu den ikusi.</p> <p>Informazio asko galduko da bidean, baina helburua ariketa dinamiko eta dibertigarri bat egitea da, eta albisteen atalak bistaratzea.</p> <hr/> <p><i>Albisteak kontatzen: Non dago gezurra?</i></p> <p>Taldeka jarriko dira eta azkenaldian gertatu den albiste bat aukeratuko dute. Gertuko albisteak izan daitezen herriko aldizkariren bat edo jarriko diegu eskura.</p>

ebete

	<p>Albiste hori prestatu eta besteei kontatu behar diete. Egitura bat mantendu behar dute: izenburua edo ideia nagusia, gaia kokatzea, azalpena ematea eta iritzi edo balorazio bat egitea.</p> <p>(Ondo ulertu eta egind ezaten, oso ondo legoke testu eredugarri bat aurkeztea: modu honetako labiste bat ematen duen norbaiten bideoa edo, eta han agertzen diren atalak bistaratzea).</p> <p>Baldintza: talde bakoitzak prestatzen duen azalpenean gezur bat sartu behar dute. Nahi dutena.</p> <p>Albistea kontatzen dutenean beste taldeetakoak gezurra zein den asmatzen zaiatu behar dute.</p>
Erabilera irekia	<p>Jarduera: Gertuko albisteen berri ematea</p> <p>Urtean zehar eman ditzakegun albisteen zerrenda egingo dugu denok batera: eskolarekin lotutakoak edo gure gertuko egoerekin. Adibidez: jaialdiak, herriko festak, udalekuak....</p> <p>Bikoteka, gai bat aukeratuko dute. Ikasturtean zehar, dagokienean, gai horri buruzko informazioa eman beharko dute (irakasleen laguntza izango dute prestatzerako garaian). Adibidez: eskolako Gabonetako jaialdia. Jalaidaren programa lantzen denean, dagokien ikasleei azalduko genieke eta beraiek emango diote programaren berri talde osoari.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

	Elikadura	Informazioa ematea	Garaian garaikoaren berri ematea
--	-----------	--------------------	----------------------------------

Elikadura: Garaian garaikoaren berri ematea	
Abiapuntua	<p>Garaian garaikoari buruz galdetuko diegu eta denon artean zerrenda bat egingo dugu. Hau da: Zein jaki lotzen dituzte urte garai bakoitzarekin? Zer udaberriarekin? Zer udarearekin? Zer udazkenarekin? Eta zer neguarekin? Ideien ekaitza egingo dugu eta argi ditugunak arbelean idatziko ditugu.</p> <p>Horretaz gain, pantailan hainbat jaki ezberdinen irudiak ere jarriko dizkiegu (barazkiak, frutak, arrainak eta abar) eta zein garairekin lotzen duten galdetuko diegu.</p> <p>Ondoren, eta denbora ematen badu, beraien etxeetan garaian garaiko zien jaki jaten diren ere galdetu diezaiekegu. Amaitzeko, paretean garaian garaikoaren posterra jarriko dugu</p>
Erabilera itxia	<p>Elikagaiak katean</p> <p>Garain garaiko elikagaien izenak esango ditugu bata bestearen atzetik. Lehendabizi errepasso bat egingo dugu, eta ondoren dinamika.</p> <p>Borobilean (edo orden jakin batean) jarriko dira. Beraietako bati bazkalordu bateko une bat esango diot eta berak une horrekin lotutako jaki bat esan behar du. Adibidez: Hasierakoak–Zainzuriak. Hurrengoak aurrekoak esandakoa errepikatu behar du eta beste bat esan: Zainzuriak–Olibak. Eta horrela zerrenda osatzen jarraitu: Zainzuriak–Olibak–Tomatea... Une batean, nahasten direnean edo eteten denean, bazkalorduko beste une bat esango dut eta berriz hasiko dira. Adibidez: Postreak–Marrubiak... Gau zabera egin daiteke urte garaiekin: Udazkeneko jakiak–Gaztainak... Edota, zailagoa egin nahi bada, biak lotuta: Udaberriko hasierakoak.</p>

	<p>Kutxa itsua: Zer agertzen da irudian? Kutxa edo karpeta baten barruan irudi bat jarriko dugu. Musika jarriko da eta eskuz esku pasako dute. Musika geratzean, eskuetan duenak ireki egingo du eta irudian zer dagoen ikusiko du. Elikagai edo jaki bat izango da. Besteek galderak egin behar dizkiote eta irudian zer dagoen asmatu. Hizkuntza errutina bat erabiliko dugu. Irudia duenak: Irati, zer dago irudian? Erantzun behar duenak: Ez dakit, galdera bat egin dezaket? Irudia duenak: Bai, egin galdera. Asmatu behar duena: Udaberriko jakia da? Edo, Fruta ba da? Edo... Behin eta berriz errepikatu da hizkuntza errutina norbaitek irudian zer dagoen asmatu arte. Irudia duenak soilik "Bai" edo "Ez" erantzun dezake.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Arkatza erdira: Banatu multzoetan Taldeka jarriko dira: 3 edo 4 kideko taldeak. Taldeetako bat "Epaileena" izango da eta erantzun zuzenak idatzita izango dituzte. Bakoitzari 20 elikagairen irudiak emango dizkiegu (edo idatziz emateak ere balio lezake). Elikagaiak garaien arabera multzokatu behar dituzte. Multzokatu dituztenean epaileei deituko diete. Epaileek egindakoa begiratuko dute, eta akatsak baldin badaude, gaizki zenbat dauden esango diete. Hau da, kopurua esango diete baina ez zeintzuk diren. Informazio horrekin, taldetxoko kideek berriz osatu beharko dituzte multzoak eta berriz epaileei deitu. Hamar minutu izango dituzte amaitzeko. Guztiak asmatuko al dituzte? Edo zenbat akatsekin maiatuko dute?</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Garaian garaikoa Hilabetero, taldetxo bateko kideek, garai horri dagokien elikagaien berri ekarri behar dute. Ez elikagai guztiena, soilik esanguratsu batzuk edo beraien gustuko batzuk. Argazkiak ekarriko dituzte eta zein elikagai den, noiztik nora den bere garaia, eta zein errezeta edo gustuko platerekin lotzen den esango dute. Aukera balego, elikagai horietako bat banatzea ere ondo legoke: urrak, intxaurrak, marrubiak, gereziak...</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Elikadura	Informazioa ematea	Menua
-------------	-----------	--------------------	-------

Elikadura: menua azaltzea	
Abiapuntua	
Erabilera itxia	<p>Hirukoteak osatzen: osatu zuen esaldia!</p> <p>Jaki bat, jaki horren ezaugarri bat eta jaki horri buruzko iritzi batekin esaldiak prestatuko ditugu. Esaldi bateko zati bat emango diogu ikasle bakoitzari.</p> <p>Patioan zehar (edo espazio zabal batean) ibiltzen hasiko dira. Musika jarriko dugu. Musika geratzean inguruan duten norbaitengana hurbildu eta beraien esaldi zatia esango dute. Bat egiten badute, elkarrekin jarraituko dute. Berriz musika jarri, berriz geratu, bakoitzak inguruko bati esan eta poliki poliki hirukoteak osatu behar dituzte. Hirukotea osatzen dutenak irakaslearengana hurbilduko dira. Denak osatutakoan, hirukote bakoitzak bere esaldia esango du ozen eta beste guztiek ondo entzuteko moduan.</p> <p>Adibidez: Yogurra mermeladarekin (1), esnekia eta fruta nahastuta(2), nori ez zaio yogur on bat gustatzen?(3)</p>

	<p>Esketxak</p> <p>Bi edo hiru esketx labur labur prestatuko ditugu. Adibidez: Egoera: bi pertsona mahai batean eserita eta zerbitzaria dator. <i>Zerbitzaria: Egun on!</i> <i>Mahaikoak: Egun on!</i> <i>Z: Gaur bazkaltzeko honakoa daukazue. Hasteko, zainzuriak mayonesarekin.</i> <i>M: Zainzuriak? (eta nazka aurpegia jartzen dute)</i> <i>Z: Ondoren, plater nagusi bezala, antxoa frijituak.</i> <i>M: Antxoak? (eta nazka aurpegia jartzen dute)</i> <i>Z: Amaitzeko postre goxo goxo bat, aguakatea eztiarekin.</i> <i>M: Aguakatea? (eta nazka aurpegia jartzen dute)</i> <i>M: Ez daukazu beste ezer?</i> <i>Z: Ez, gaur hau bakarrik daukagu</i> <i>M: Ba gu bagoaz! Agur!</i></p> <p>Esketxa irakurriko dugu eta denon artean ozen errepikatu.</p> <p>Ondoren, hiru kidek esketxa egingo dute. Eta, txandaka hirukoteak aldatzen joango dira eta esketxa errepikatu.</p> <p>Baina bigarren taldeak egin ondoren, aldaketak sartzen hasiko gara. Hau da: orain hirurok farrez egin behar duzue, orain negarrez, orain haserre, orain triste... Esketxak errepikatzea jolas bihurtuko dugu.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Azalpen katea: Aste osoko menua</p> <p>Aste osoko menua idatziz edukiko dugu.</p> <p>Ikasleetako batzuk gelatik aterako dira. Besteei menua irakurriko diet patxadaz. Bi aldiz irakurriko diet.</p> <p>Ikasgelatuik kanpo dagoen bat sartuko da. Gelan dagoen kideetako batek (nik aukeratu dezaket edo boluntario bat eskatu) menua azalduko dio. Buruz egin behar du, ez dauka idatzita. Kanpotik sartu dezak galderak egin ditzake baina beste guztiek ezin diote lagundu, soilik azalpena eman duenak.</p>

	<p>Beste bat sartuko da kanpotik eta azalpena azkena entzun duenak azalduko dio menua. Banan bana guztiak sartuk dira eta beti azkena eman duenak emango die azalpenak.</p> <p>Azkenebgoak berak jaso duena esango du.</p> <p>Zein informazio iritsiko zaio? Informazio asko galduko al da?</p>
Erabilera irekia	<p>Jarduera: Jantokiko menua azaltzea</p> <p>Aste batzuetan zehar, egunero bazkalorduen aurretik, hiru ikasle osatutako atldetxoek jantokiko menuaren berri emango dute.</p> <p>Lehenengoa mezuan zer dagoen esaten hasiko da. Adibidez: Lehenengo platera dilitasik izango dira.</p> <p>Bigarrenak dilisten ezaugarriren bat esango du. Adibidez: Dilistak legunbrea dira eta normalean egosita jaten dira.</p> <p>Hirugarren ekarpen bat egingo du, balorazio modukoren bat. Adibidez: Gehienoi gustatzen zaizkigu dilistak, baina etxeokak hobekak dira!</p> <p>Ondoren, bigarren platerarekin eta postrearekin ere berdina egingo dute.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Erosketak	Aholkuak	Erosketak ondo egiteko aholkuak
-------------	-----------	----------	---------------------------------

Erosketak: Erosketak ondo egiteko aholkuak	
Abiapuntua	<p>Erosketei buruz eta erosketak egiteko aholkuei buruz hitz egin nahi dugula esango diegu. Zer erosi izan dute azkenaldian? Beraiek bakarrik edo gurasoekin. Erosketa horiek egiterakoan, zer hartu dute kontuan? Ideien ekaitza egingo dugu baina eskura zerrenda bat ere izango dugu: zenbat ditu dugun, zertarako den eta abar. Ondoren, egoera batzuk planteatuko dizkiegu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lagun bati opari bat egin nahi diozue. Zer hartzen duzue kontuan? Nolakoa den, zer gustatzen zaion, prezioa... • Egarrri handia daukazue baina ez dago iturririk gertu. • Musika tresna bat jotzen hasi nahi duzue (zehaztu daiteke zein) eta musika tresna erosi erosi nahiko zenukete • Igandeko bazkarirako postrea erostera bidali zaituzte amak/aitak • ...
Erabilera itxia	<p>Esketxak</p> <p>Esketx labur laburrak prestatuko ditugu. Hiru edo lau. Banan bana egingo ditugu (saio batean edo batzuetan). Esaldiak pantailan jarri eta denon artean irakurriko ditugu. Ikasteten ditugunean esketxa egiteko behar direnak erdira</p>

	<p>aterako dira eta esketxa egingo dute. Gero berriz egingo dugu beste batzuekin. Erraz egiten dutela ikusten dugunea, aldaketak sartzen hasiko gara: farrez egin, negarrez, garraxika, elkarri bizkarra emanda... Hau da: jolas bihutuko dugu baina nahi ditugun egitura horiek behin eta berriz erabiliko dituzte.</p> <p>Adibidez:</p> <p><i>Lehengusu batentzat oparia erosten</i></p> <p>– <i>Dendaria: Egun on!</i></p> <p>–<i>Eroslea: Egun on!</i></p> <p>–<i>D: Zer nahi duzu?</i></p> <p>– <i>E: Opari bat erosi nahi diot lehengusu bati</i></p> <p>–<i>D: Zer oparitu nahi diozu?</i></p> <p>–<i>E: Zer gomendatzen didazu?</i></p> <p>–<i>D: Orrazi bat. Begira: hau polita da eta oso modernoa. Itxura oso onekoa. Baietz? Eta merke merkea da!</i></p> <p>–<i>E: Baina nire lehengusua burusoila da!</i></p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Denda jolasa</p> <p>Ikasleei azalduko diegu bidai bat egin nahi dutela eta bidai horretarako behar dutena erosi behar dutela. Batetik, bidai bera hartu behar dute. Bestetik, bertara eramateko arropa. Eta azkenik, janaria eta edaria.</p> <p>Sei denda eta dendari jarriko ditugu. Lehen itzulian bidaia agentziak izango dira. Denda bakoitzean pertsona bat egongo da. Dena horretako pertsona horri txartel batzuk emango dizkiogu: leku bat eta prezio bat izango ditu.</p> <p>Beste kideei diru bat emango diegu. Adibidez: 1000 euro.</p> <p>Dendaz denda ibili behar dute eta zein bidai dauden galdetu. Dendariak bertara joatea aholkatu behar diete argudio batzuk erabili. Lekuak eta prezioak oso ezberdinak izango dira: Karibera 900 euro, Kanarietara 800 euro, Pirinioetara 300 euro, Errioxara 200 euro eta abar</p>

	<p>Erosleek argi ibili behar dute: beste gauzetarako ere dirua gorde behar dutez</p> <p>Erosketa egin dutenean dendak aldatuko ditugu (nahi badugu denariak ere bai). Orain arropa dendak izango dira. Dendari bakoitzak elementu batzuk izango ditu txarteletan: bainujantziak, txankletak, toallak, mendiko botak, galtza motzak... Bakoitzak prezio bat izango du.</p> <p>Berriz ere ikaskideak dendaz denda hasiko dira zer duten eta zer aholkatzen dieten galdetuz. Ni Karibera noa: zer eraman beharko nuke? Zuk daukazun zer izan daiteke niretzat egokia? Zenbat balio du?</p> <p>Azkenik, berdina egingo dugu janari eta edariarekin.</p> <p>Amaitzean, bakoitzak zer eerosi duen galdetuko diegu. (Aurrez prezioak eta jartzerakoan behar den guztai lortzea ezinezkoa izatea zainduko dugu. Eta, adibidez, Karibera doanak bainujantzia, txankletak eta toalla eraman ahal izatea ezinezkoa izatea). Zer hartu duten, zer falta ziaen, zer aholkatu dieten, damutu ote diren eta abar hitz egingo dugu.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Zalantzen kutxa</p> <p>Zalantzen kutxa jarriko dugu ikasgelan. Ikasleek, zerbait erosteko asmoa edo badute, eta oso argi ez badute, bertan jar dezakete zalantza hori.</p> <p>Astean behin kutxa irekiko dugu eta zalantzak irakurriko ditugu.</p> <p>Nor dago prest aholkua emateko? Boluntario bat eskatuko dugu eta horrek aholkua emango du. Berak besteei ere laguntza eskatuko die eta denon artean hitz eginaz osatuko dugu aholkua.</p> <p><i>Adibidez: Aitonari opari bat erosi nahi diot baina ez dakit zer izan daitekeen, edota Udako galtza motzak erosi behar ditut baina ez dakit herrian non begiratu, edo...</i></p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

	Herria	Jarraibideak	Leku batetik bestera nola joan azaltzea
--	--------	--------------	-----------------------------------------

Herria: Leku batetik bestera nola joan	
Abiapuntua	<p>Jarraibideak emateko moduei buruz hitz egin nahi dugula esango diegu. Hau da: leku batetik bestera nola joan azaltzen dugunean erabiltzen ditugun moduei buruz.</p> <p>Hiru galdera egingo dizkiet: Ikastolatik udaletxera joan nahiko banu, nondik nora joan beharko nuke? Ikasgelatik patiora joan nahiko banu, nondik nora joan beharko nuke?...</p> <p>Erantzuteko prest nor dagoen galdetuko dut, eta horiek azalpena emango didate.</p> <p>Ondoren, elkarrizketa egin eta hor ateratzen direnak arbelean idatziko ditugu: Zer erabiltzen dugu azalpenak ematerakoan? Distantziak, lekuen izena, espazioen izenak...</p>
Erabilera itxia	<p>Keinu jolasa.</p> <p>Aurrera, atzera, ezkerretara, eskuinetara, mantso, azkar, pauso kopurua</p> <p>Espazio nahiko handi batean, taldeki bat beste guztien aurrean jarriko da. Honi orri bat emango diogu jarraibide batzuekin. Adibidez: Hasteko, hamar pauso atzera. Ondoren, bost pauso ezkerretara. Gero, bost pauso handi atzera.</p>

	<p>Amaitzeko 15 pauso txiki aurrera azkar azkar.</p> <p>Jarraibideak dituen kideak ozen irakurriko du atal bakoitza eta keinuekin lagunduko du. Beste guztiek esan duen hori ozen errepikatu behar dute, eta ondoren bete egin behar dute.</p> <p>Beste kide bat atera eta berdina egingo dugu.</p> <p>Bi aldiz edo egin dugunean, erdira ateratzen den kideak ezingo du hitz egin. Soilik keinuak egingo ditu. Besteek keinuekin ulertu dutena ozen errepikatu behar dute, eta ondoren esan diete hori egin.</p> <p>Zenbait aldiz errepikatuko dugu.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Pareko.</p> <p>Mapa batzuk prestatuko ditugu. Herriko plano modukoak izan daitezke: parkeak, auzoak, udaletxea, farmazioa, okindegia... Hainbat bide ezberdin jartzea izango da garrantzitsuena, ibilbide anitzak sortu ahal izatea.</p> <p>Kideetako bat erdira aterako da eta berari mapa horretan nondik nora joan behar duen jarraiko diogu. Nahiko ibilbide nahasia izan behar du.</p> <p>Berak besteei azalpena eman behar die: nondik abiatuko den esango die baina ez nora iritsi behar duen.</p> <p>Ibilbide osoa deskribatu behar die eta besteek marra bat mapan eginaz jarraitu egingo dute.</p> <p>Azalpena ematen duen bitarte inork ezin du galderarik egin. Azalpena ematen duenean galdera egiteko tartea utziko dugu baina hizkuntza-errutina bat txertatuko dugu. Norbaitek badu zalantzaren bat? Bai, nik badut zalantza bat...</p> <p>Ondoren nora iritsi behar zuten esango die: nortzuk iritsi dira? Egin beharreko ibilbide ondo jarraitu al dute?</p>
	<p>Hitz debekatuak</p> <p>Ikasgelan taldeka jarriko dira. Talde bakoitzak ikastetxeko leku bat aukeratu behar du. Ikasgelatik leku horretara nola iritsi azaldu beharko diete besteei, baina lekuen izenak erabili gabe: patioa, jantokia, pasiloa... ezin dira erabili</p>

	<p>(edo hori zailegia bada, erabili ezin diren lau leku-izen esango dizkiegu)</p> <p>Azalpena prestatu behar dute: hasieran ahoz (eta ondoren nahi izan ezker idatzeko baimena eman)</p> <p>Talde batekoek beste guztiei azalpena emango die: patxadaz eta beharrezkoa den guztietan errepikatuz. Besteek, hori entzunda, leku batera joan behar dute. Asmatuko ote dute nora iritsi behar zuten?</p> <p>Talde guztienak egin arte errepikatuko dugu.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Jarduera: Asteburuetarako proposamena</p> <p>Hamabostean behin edo, asteburuetan bisitatzeke lekuen proposamenak egingo dituzte ikasleek: banaka edo binaka egin daiteke.</p> <p>Bakoitzak beraien uste herrian edo eskualdean bisitatzera merezi duen leku bat aukeratuko du. Bertarajoatea gonbidatuko dituzte beste ikasleak, eta bertara joateko jarraibideak emango dizkiete. Adibidez: <i>Guk Zierbenarako portura joatea animatzen zaituztegu. Horretarako, bertakoak ez bazarete, autobus hartu beharko duzue. Zierbenara iristean...</i></p> <p>Proposamenak egin aurretik, aurreko proposamena kontuan hartu ote den ere galdetuko dugu: norbait joan ote den, jarraibideak erabili ote dituen, ondo iritsi ote diren, eta lekua gustatu ote zaien.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Kirolak	Deskribapenak	Kirola deskribatzea
-------------	---------	---------------	---------------------

Kirolak: Kirola deskribatzea	
Abiapuntua	<p>Guztion artean oso ezagunak egiten zaizkigun lau kirol aukeratuko ditugu: futbola, saskibaloia, igeriketa... Zein dira kirol horien ezaugarriak? Zerk bereizten ditu bata bestetik?</p> <p>Denon artean zerrenda bat osatzen saiatuko gara eta arbelean idatziko ditugu. Multzo ezberdinak erabiltzen ere saiatuko gara:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Kirol hori egiteko behar diren elementu nagusiak: baloiak, igerilekua... • Kirol horretako goi mailako kirolarien ezaugarri fisiko ohikoenak: altura, mugikortasuna, koordinazioa... • Kirolaren beraren ezaugarri nagusi batzuk: taldekakoa izatea, banakakoa, besteak ezustean hartzea, erritmoa mantentzea... • ... <p>Kirol bakoitzaren deskripzio bat egingo dugu eta taldeka kartulinetan idatziko dituzte. Paretean jarriko ditugu.</p>
Erabilera itxia	<p>Zerrenda osatuenaren lehiaketa</p> <p>Taldeka jarriko dira.</p> <p>Kirol bat esango dugu. Adibidez: Eskubaloia</p> <p>Talde bakoitzak kirol horren ezaugarriekin zerrenda egin behar du: elementu nagusiak, kirolarien ezaugarri fisikoak,</p>

	<p>kirolaren beraren ezaugarri nagusi batzuk...</p> <p>Minutu bat izango dute horretarako. Ondoren, galdera egingo diegu? Zein dira kirol horren ezaugarriak?</p> <p>Taldez talde, txandaka, elementu bat esango dute eta beti esaldi osoak erabili beharko dituzte. Hau da: ez du balio "baloia" esateak, baizik eta "eskubaloira jokatzeko baloia behar da".</p> <p>Talde batek elementu bat aipatzen badu, besteek ezin dute errepikatu. Txandaka esaten doazen neurrian zerrendak amaituko zaizkie. Zein taldek egin du zerrenda osatuena? Talde horrek zerrendan jarri duen guztia ozen esango du.</p> <p><i>Adibidez: Kirola egiteko baloia eta porteria behar dira. Kirolariak gehienetan altuak eta indartsuak izaten dira, baina oso agilak ere bai. Kirol horretan abiadura garrantzitsua da eta paseak ondo ematea ere bai.</i></p> <p>Kirol batzuekin berdina egingo dugu.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Kirol "xelebreak" deskribatzen</p> <p>Hirunaka edo, kirol bat aukeratuko dute. Nahiko ezezaguna edo bitxia den kirol bat. Adibidez: abentura kirolak (ultra maratoiak, parapentea...) edo nahiko ezagunak diren kirol batzuen bertsioak (Australiako futbola, pilotako modalitateen bat...).</p> <p>Deskripzioa prestatu beharko dute saioen batean, Beste saio batean talde bakoitzak berea aukreztuko du eta bideo labur bat ere jarriko du adibide moduan.</p>
<p>Erabilera irekia</p>	<p>Egingo ditugun kirolak deskribatzea</p> <p>Gorputz Hezkuntzan kirol berri bat egitera goazen bakoitzean, bikote edo talde txiki batek kirol hori deskribatuko du. Egun batzuk lehenago esango zaie prestatzeko, eta saioaren hasieran deskripzioa egingo dute.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Kirolak	Informazioa ematea	Arauak azaltzea
-------------	---------	--------------------	-----------------

Kirolak: Arauak azaltzea	
Abiapuntua	<p>Guztion artean oso ezagunak egiten zaizkigun lau kirol aukeratuko ditugu: futbola, saskibaloia, igeriketa... Zein dira kirol horien arauak? Nola jolasten da?</p> <p>Denon artean zerrenda bat osatzen saiatuko gara eta arbelean idatziko ditugu. Besteak beste honelako elementeuk agertu behar dute:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Iraupena • Irabazteko modua • Debekatuta dauden egoerak • Bete beharreko arauak • ... <p>Kirol bakoitzaren zerrenda egingo dugu eta taldeka kartulinetan idatziko dituzte. Paretean jarriko ditugu.</p>
Erabilera itxia	Zerrenda luzea osatzen taldean

	<p>Lehendik kartulinetan jarrita ditugun kirolen arauak irakurriko ditugu</p> <p>Ikasleak borobilean jarriko dira edo ikasgelan orden bat ezarriko dugu: nor hasiko den, nor hurrengoa...</p> <p>Kirol bat esango diet, eta "Bai" edo "Ez" esango diet. Adibidez: Saskibaloian, bai.</p> <p>Txandaka saskibaloiko arauak esaten hasi behar dute, baina batak bestearen osatuz. <i>Adibidez: 1-Baloia saskian sartu behar da 2-Boteak eman behar dira 3-Baloia elkarri pasa behar zaio 4-Bost bosten kontra aritzen dira...</i></p> <p>Ezinean geratzen direnean edo aldaketa egin nahi dugunean, "Geldi!" esango dugu, eta beste kirol bat edo beste aukera esango diegu. <i>Adibidez: Saskibaloia, ez. 1-Ez da igerilekuan egiten 2-Ez da golik sartzen 3-Ez da palarik erabiltzen...</i></p> <p>Zailagoa egin nahi badugu, zerrendak kendu daitezke. Edo aurrez landu gabeko kirol batekin saiakera egin.</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Arauak aldatzen</p> <p>Gorputz Hezkuntzako saio batzuetan, ohiko kirol bat egiten jartzen ditugunean, bikote bati taldetik aterako eta albo batean jartzeko eskatuko diegu.</p> <p>Bikote honek kirol horretarako arau aldaketak pentsatu behar ditu. Prest dituztenean, banan bana eta batetik bestera tarte bat utziz, arau berri horiek txertatu arazizko dizkiete besteei. <i>Adibidez: Saskibaloia. Ezin dira boteak eman baina paseak eman behar dira, Saskian sartu beharrean porterian sartu behar da baloia, Rugbiko baloiarekn jokatu behar da...</i></p> <p>Gustatzen bazaie, zenbait egun ezberdinetan egin daiteke hau.</p> <p>Arkatza erdira: Kirolak nahasten</p> <p>Ikastolan egin daitezkeen hainbat kirolen izenekin txartelak sartuko ditugu kaxa batean. Taldeka, bi txartel hartuko dituzte zer jartzen duen ikusi gabe. Bi kirol izango ditu talde bakoitzak eta elkarrekin nahastuz kirol berri bat soru behar dute. <i>Adibidez: Saski-eskupilota. Arauak: pilotaren orde z baloiari jo behar zaio eskuarekin, frontoiaren alde batetik bestera iritsi behar da eskuarekin emanaz eta elkarri pasatuz...</i></p> <p>Kirol berri hori asmatu behar dute eta arauak zehaztu. Arkatza erdira egingo dugu: guztia adostu arte eizn dute</p>

	<p>idatzi. Ondoren, bai.</p> <p>Gorputz Hezkuntzako saio batzuetan kirol hauek egingo ditugu: asmatu dutenek azalduko dute, zalantzak argituko dituzte, eta denok parte hartu egingo ditugu.</p>
Erabilera irekia	<p>Egingo ditugun kirolen arauak azaltzea</p> <p>Gorputz Hezkuntzan kirol berri bat egitera goazen bakoitzean, bikote edo talde txiki batek kirol horren arauak azalduko ditu. Egun batzuk lehenago esango zaie prestatzeko, eta saioaren hasieran azalpena emango dute.</p>

AHOZKOA LANTZEKO JARDUERA LABURRAK LEHEN HEZKUNTZAN

LH 2 zikloa	Lagunak	Sentimendu–Iritzi–Argudioa	Balioak
-------------	---------	----------------------------	---------

Lagunak: Balioak	
Abiapuntua	<p>Balioak zer diren azalduko diegu saio batean (behar bada aurretik ere landuta izango dugu gai hau modu sakonagoan). Gutxi gora behera: pertsona bezala gure jokabideak gidatzen edo bideratzen dituzten jarrerak. Zein jarrera izan daitezke? Adibidez: arduratsua izatea.</p> <p>Denon artean zerrenda bat egingo dugu arbelean. Guk beste zerrenda bat prest izango dugu, eta ideiak eman ezinik geratzen badira, zerrendakoak aipatuko dizkiegu eta ezagutzen ote dituzten eta zer esan nahi duten ere galdetuko diegu: enpatia, autoestimua, konpromisoa, esker onekoa izatea, pazientzia, baikortasuna, eta abar</p>
Erabilera itxia	<p>Galdera katea</p> <p>10 balio aukeratuko ditugu eta arbelean idatziko ditugu</p> <p>Txartel batzuetan hiru balio idatziko ditugu: txartel ezberdinak osatuko ditugu balioak nahastuz.</p> <p>Ikasleei txartel bana emango diegu.</p> <p>Galdera honakoa izango da: <i>Zu.... al zara? Adibidez: Zu baikorra al zara?</i></p> <p>Ikasleetako bat hasiko da ondokoari galdezka. Zein baliori buruz galdetu lehenengoak erabakiko du. Galdera egingo</p>

	<p>dio bigarrenari eta honek bere txartelean duenaren arabera erantzungo du: txartelean agertzen bada bai, eta agertzen ez bada ez. Adb: Zu baikorra al zara? Ez, ni ez naiz baikorra.</p> <p>Bigarrenak hirugarrenari, hirugarrenak laugarrenari... Galdera errepikatu beharko dute norbaitek "Bai" erantzun arte. Bain erantzuten duenak bere txarteletik bat kenduko du, eta beste balio batekin hurrengoari galdera egingo dio eta berriz "bai""ez" erantzunak jasoko dira.</p> <p>Hainbat itzulio egingo dira norbaitek zerrenda amaitu arte (balioak berberak behin baino gehiagotan erabili daitezke).</p>
<p>Erabilera bideratua</p>	<p>Taldeak osatzen</p> <p>Patioan (edo leku zabal batean) ibiltzen hasiko dira eta nahastu egingo dira. Musika jarriko dugu. Musika etetean kopuru bat esango dugu. Adibidez: Hiru. Hiruko taldeak osatu behar dituzte.</p> <p>Taldeak osatzen dituztenean balore bat esango diegu. Adibidez: Baikortasuna. Hirukote bakoitzak baikorrak izan diren egoera bera topatu behar du. Adibidez: azterketei begira baikorrak dira. Egoera hori topatu dutenean denak elkartuko ditugu eta talde bakoitzak berea esango du.</p> <p>Berriz ere musika jarri, eten, beste kopuru bat esan eta taldeak egin, beste balore bat aipatu eta egoera komun bat adostu, eta denen artean hitz egin.</p> <p>Zenbait aldiz errepikatuko dugu dinamika.</p>
	<p>Arkatza erdira</p> <p>Esaldi batzuk prest izango ditugu eta banaka irakurriko dizkiegu. Adibidez: <i>Mikelek zailtasunak zituen eta ez zuen lortzen ariketa ondo egitea. Gaizki pasatzen ari zen. Ainhoa horretaz konturatu zen, eta berea oraindik amaitu gabe zuenez baina denbora emango ziola ikusten zuenez, Mikelengana hurbildu zen eta laguntza eskaini zion.</i></p> <p>Taldetxo bakoitzak egoera hori balio bat edo batzuekin lotu behar du eta zergatik lotzen duen balio horrekin argudiatu. Guztia, noski, ahoz egin behar dute.</p>

	Ondoren, talde guztien artean elkarrizketa egingo dugu: zer aukeratu du bakoitzak? zergatik?
Erabilera irekia	<p>Jarduera: Balioekin lotutako esperientziak</p> <p>Hiru hileko batean zehar kutxa edo buzoi bat jarriko dugu ikasgelan. Nahi duenak lagun edo ikaskide bati buruz zerbait idatzi dezake.</p> <p>Astero, tutoretza saio batean, buzoian zer dagoen begiratuko dugu. Idatziren bat baldin badago, hori irakurriko da, eta idatzi duenak azalpenak osatuko ditu.</p> <p>Baldintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Lagun edo ikaskide bati buruz izatea (denentzat edo gehientzat ezaguna) • Balio baten inguruan egin duen edo egin duela irudi zaigunari buruzkoa: une ausarta, laguntzeko jarrera, animatzen duena... • Beti antzeko egitura erabiliko dugu: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Nori buruz idatzi dugun: "Nik Ainhoari buruz idatzi dut" ◦ Zer jarri dugun: "Aste honetan oso hausarta izan dela jarri dut" ◦ Kontakizuna egingo du: "Aste honetan txerto bat jarri behar zioten eta beldur handia die orratzei, baina joan zen eta urduri bazen ere txertoa ondo jarri zuen" ◦ Nahi izan ezker, horrelako egoerei buruzko komentario gehiago egin ditzakete ikaskideek. Adibidez: Nork gehiago ikusi ditu egoera ausartak aste honetan?